

Oinarriak

- **Aurkezteko Epea:** Urriaren 15tik- Azaroaren 15era
- **Aurkezteko lekua:** Urkome
- **Aurkezteko dokumentazioa:**

Bi zatitan banatuta ideia edo egitasmo bakoitzarentzako. Datu pertsonalak alde batetik eta proiektu edo egitasmoaren informazioa bestetik.

- **Guztira 5 atal Atal bakoitzean:**

2.000 €

- **SARI IREKIA** edo bozka bidezkoak, eskualdeko produktuez osaturiko lote bat, izango du ordainsari.
- **Eremua:** Urola Kostan garatzen ari den edo garatuko den proiektua izatea.
- **Partehartzaileak:** Erakunde, elkarte eta partikularrak eta sektoreko enpresak
- **Proiektuak:** 2013urtean egitasmoa edo ideia aurkeztu baina exekuzioa garatu gabe dutenak edo proiektua amaitzeaz dutenak.



UROLA KOSTAKO LANDA GARAPENeko ELKARTEA

Enparan, 1-2.
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 65 00 - Fax: 943 15 73 85
urkome@urkome.com
www.urkome.com



HIRUGARRENGO URKOME SARIAK

HIRUGARRENGO

URKOME SARIAK

Sariak, bi urtetik behin banatzen dira eta aurtten sei ataletan emango dira:

- Nekazaritza Jardueraren Garapena atalean.
- Landa Eremuetako Bizi Kalitatearen hobekuntza atalean.
- Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa atalean.
- Landa Eremuak betetzen dituen funtzioen zehaztapena eta errekonozimendu atalean.
- Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkarteak amankomunean emango dutena.
- Sari berezia IREKIA, bozka bidez egingo dena.

Atal hauek Urkomek 2008an onartutako 2007-2013 Landa Garapen Programan barneratuta dauden lau garapen ardatzetan oinarrituta daude. Bosgarrena aldiz, Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkarteak amankomunean emango dute. Azkenik, seigarrena sektorearen partaidetza hobetzeko jarri den sari bat da. Bozka irekiz egingo den saria da eta eskualdeko produktuez osaturiko lote bat izango du ordainsari. Sariak emateko, epaimahai bat izango da. Hau HAZI Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Iraurgi Berritzen, Urola Kostako udal elkarte eta Urkomeko Zuzendaritza Batzordeko kideez osatuta egongo da.



URKOME
UROLA KOSTAKO LANDA GARAPENEN ELKARTEA

Balorazio irizpideak

- 1 Ideia berritzailea izatea produktu edo zerbitzu berria sortuz.
- 2 Berrikuntzak egun dauden produktu edo zerbitzuetan.
- 3 Teknologia berrien aplikazioak aurrakusten dituzten proiektu edo ideiak.
- 4 Bideragarritasun ekonomikoa baloratuko da.
- 5 Enplegua sustatzen duten proiektuak baloratuko dira.
- 6 Berdintasuna aurrakusten duten proiektuak.
- 7 Gazteen ideiak gehiago baloratuko dira.
- 8 Kooperazio proiektuak gehiago baloratuko dira.
- 9 2014rako exekuzioa aurrakusten duten proiektuak eta hori bermatzen dutenak gehiago baloratuko dira.



Epaimahaiaren erantzuna

- Epaimahaiak sariak emateko gaitasun askea du eta adostasunez hartuko ditu erabakiak erizpideen arabera.
- Irabazleei telefonoz deituko zaie eta www.urkome.com web orrialdean jarriko dira.
- Epaimahaiak atal bakoitzerako dagoen saria nola banatu erabakitzeke eskumena izango du, bai eta eman gabe uztekoa ere, horretarako proiektu egokirik ez dagoela iritziz gero.

Parte-hartzaileen betebeharrak

- Sari lehiaketaren oinarriak onartzea.
- Ideia edo proiektua behar den bezala aurkeztea.
- Datuen fidagarritasuna bermatzea.

Antolakuntzaren betebeharrak

- Partaideek aurkeztutako proiektu edo ideiak isilik/babesturik mantentzea.